

BITEGUARD

Nondik sortzen da ideia?

Hortz-protiesietako ikasle gisa ikusi dut:

- Kirol-lesio dental asko **saihestu daitezkeela**
- Familia askok ez dutela klinika bateko aho-babeslea ordaindu ahal
- Kirol-dendetako aukerak ez direla nahikoak

Proiektua kirolerako ahoko babesle pertsonalizatuen diseinuan, fabrikazioan eta merkaturatzean aritzen den enpresa baten sorrera da, batez ere kontaktuko kirolak egiten dituzten kirolari gazteei zuzendua.

Ekimenaren helburu nagusia babesa, erosotasuna eta pertsonalizazioa uztartzen dituen produktu bat eskaintzea da, hortz-klinikan fabrikatzen diren aho-babesle pertsonalizatuak baino prezio eskuragarriagoan, eta, aldi berean, kirol-dendetan saltzen diren aho-babesle generikoak baino seguruagoa eta eraginkorragoa dena.

Enpresak hortz-protiesien lantegi txiki batean du oinarria; bertan aho-babesleak fabrikatzen dira odontologian erabiltzen diren material seguruak eta moldeatze-teknikak erabiliz. Proiektua ez da soilik produktuaren salmentan oinarritzen, baizik eta hortz-lesioen prebentzioan eta kirolean aho-osasunaren garrantziari buruzko kontzientziazioan ere bai.

Zergatik da interesgarria proiektua?

- **Arazo erreal bati erantzuten dio**
- Osasuna + kirola + berrikuntza uztartzen ditu
- Enpresa txiki gisa hasi daiteke, baina **hazteko aukera handia du**
- Balio soziala eta ekonomikoa batera lantzen ditu

